

GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2017KO APIRILAREN 4AN LEHENENGO DEIALDIAN, EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.	ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 4 DE ABRIL DE 2017.
<u>BERTARATUAK</u>	<u>ASISTENTES</u>
<u>LEHENDAKARIA</u>	<u>PRESIDENTE</u>

Imanol Landa Jauregi jn.

<u>BATZARKIDEAK</u>	<u>V O C A L E S</u>
----------------------------	-----------------------------

Joseba Arregui Martínez Jn.
Álvaro González Pérez Jn.
Elena Coria Yanguas And.
Koldo Iturbe Mendilibar Jn.
Jose Luis Landa Arteché Jn.

<u>IDAZKARI NAGUSIA</u>	<u>SECRETARIO GENERAL</u>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko apirilaren lauan, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotzietz gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

Alkateak, legeak eskatzen duen kidekopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a cuatro de abril de dos mil diecisiete, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

137.- 2017KO MARTXOAREN 28AN
EGINDAKO OHIKO BILERAKO
AKTA ONESTEIA.

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2017ko martxoaren 28ko bilerakoa, hain zuzen.

OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA
SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK,
GAZTERIA ETA EUSKARA

138.- GETXOKO UDALERRIKO
ESPARRU ESTRATEGIKOAK
EKONOMIA ALDETIK
SUSTATZEKO PLANAREN
BARNEKO BIURTEKO EKINTZA-
PLANAK TAXUTZEKO ETA
EZARTZEKO 2016-2020
BITARTERAKO ESLEITUTAKO
ZERBITZUA LUZATZEA, HALA
NOLA LEHENENGO BIURTEKO
PLANA EZARTZEKO.

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: URTEBETEZ luzatzea (lehenengo luzapena eta bakarra), 2017/04/19tik 2018/04/18ra, LKS S. COOP. enpresarekin (IFK: F-20369153) izenpetutako kontratuaren indarraldia: GETXOKO UDALERRIKO ARLO ESTRATEGIKOEN EKONOMIA-SUSTAPENENKO PLANAREN BI URTEKO PLAN OPERATIBOAK PRESTATU NAHIZ EZARTZEKO 2016-0220 ALDIRAKO ETA BI URTEKO LEHENENGO PLANA EZARTZEKO ZERBITZUA; 21.938,70 euroko PREZIOAN URTEAN, gehi BEZaren % 21i dagozkion 4.607,13 euro.

137.- APROBACIÓN DEL ACTA DE
LA ANTERIOR SESIÓN
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA
28 DE MARZO DE 2017.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 28 de marzo de 2017.

HACIENDA, CUENTAS,
PROMOCIÓN ECONÓMICA,
RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD
Y EUSKERA

138.- PRÓRROGA DEL SERVICIO DE
DISEÑO E IMPLANTACIÓN DE LOS
PLANES OPERATIVOS BIANUALES
DEL PLAN DE PROMOCIÓN
ECONÓMICA DE LOS ÁMBITOS
ESTRATÉGICOS DEL MUNICIPIO
DE GETXO, 2016-2020 E
IMPLANTACIÓN DEL PRIMER
PLAN BIANUAL.

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (primera y única prórroga), desde el 19/04/2017 al 18/04/2018, la vigencia del contrato suscrito con la razón social "LKS, S. COOP." con CIF: F-20369153, para el SERVICIO DE DISEÑO E IMPLANTACIÓN DE LOS PLANES OPERATIVOS BIANUALES DEL PLAN DE PROMOCIÓN ECONÓMICA DE LOS ÁMBITOS ESTRATÉGICOS DEL MUNICIPIO DE GETXO 2016-2020 E IMPLANTACIÓN DEL PRIMER PLAN BIANUAL, por un PRECIO ANUAL DE 21.938,70.-euros

más 4.607,13.-euros correspondientes al 21% del I.V.A.

BIGARRENA: Behar den gastua baimendu eta xedatzea, hots, 21.938,70 euro -gehi BEZaren % 21i dagozkion 4.607,13 euro-.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario por un importe de 21.938,70.-euros más 4.607,13.-euros correspondientes al 21% del I.V.A

**139.- ERAIKUNTZA-
MATERIALAREN HORNIKETA
LUZATZEA.**

**139.- PRÓRROGA DEL
SUMINISTRO DE MATERIALES DE
CONSTRUCCIÓN.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: URTEBETEZ luzatzea (bigarren luzapena), 2017/01/06tik 2018/05/31ra, JOSÉ RAMÓN YANGUAS CARRASCAL jaunarekin (NAN: 16.037.920-C) sinatutako kontratuaren indarraldia: ERAIKUNTZAKO MATERIALEN HORNIDURA, bere eskaintza ekonomikoan jasotako unitateko prezioetan, eta 45.000 euroko gehieneko urteko aurrekontuan, BEZaren % 21 barne (37.190,08 € gehi BEZaren % 21i dagozkion 7.809,92 €).

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (segunda prórroga), desde el 01/06/2017 al 31/05/2018, la vigencia del contrato suscrito con D. JOSÉ RAMÓN YANGUAS CARRASCAL con DNI: 16.037.920-C, del SUMINISTRO DE MATERIALES DE CONSTRUCCIÓN por los precios unitarios recogidos en su oferta económica y por un presupuesto máximo anual de 45.000.- euros anuales, 21% de I.V.A. incluido (37.190,08.-€ más 7.809,92.-€ correspondiente al 21% de I.V.A.

BIGARRENA: Luzapen horri aurre egiteko behar den gastua baimentzea eta xedatzea: 37.190,08 €, gehi 7.809,92 € (BEZaren % 21i dagozkionak).

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario por importe de 37.190,08.-€ más 7.809,92.-€ correspondiente al 21% de I.V.A. para hacer frente a la citada prórroga.

**140.- UDALERRIKO KALE
BATZUETAKO ZORU GAINEKO
SEINALEAK MARGOTZEKO
PROIEKTUKO LANEN LIKIDAZIO-
ZIURTAPENAK ONESTEA; KALEAK
HONA: ALTUBE, AMANN,
ARKOTXA, TRENBIDEKO
ETORBIDEA, ENRIQUE ARESTI,**

**140.- APROBACIÓN DE LA
CERTIFICACIÓN LIQUIDACIÓN DE
LAS OBRAS COMPRENDIDAS EN
EL PROYECTO DE SEÑALIZACIÓN
HORIZONTAL EN VARIAS CALLES
DEL MUNICIPIO: ALTUBE,
AMANN, ARKOTXA, AVDA. DEL
FERROCARRIL, ENRIQUE ARESTI,**

**ILLETA, ITURRIBIDE, URDUÑA,
PORTUKO IBILTOKIA ETA VILLA
DE PLENTZIA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: Behin betiko bigarren ziurtagiria eta baloratutako zerrenda onestea, 9.777,14 euroko zenbatekoan aurkeztutakoa ondoko proiektuari dagokion obra-zuzendaritzak: UDALERRIKO ZENBAIT KALETAN SEINALEZTAPEN HORIZONTALA JARTZEKO PROIEKTUA (ALTUBE, AMANN, ARKOTXA, TRENBIDE ETORB., ENRIQUE ARESTI, ILLETA, ITURRIBIDE, URDUÑA, PORTUKO PASEALEKUA ETA PLENTZIA HIRIARENA). Udaleko Gobernu Batzarrak "SEÑALIZACIONES EDER" izeneko enpresari adjudikatu zizkion lanok, 2016/10/11n egindako 378. Erabakiaren bidez. Gastua udalaren aurrekontuaren kargura egin da.

**141.- UDAL ERAIKINETAKO
AUTOBABES-PLANAK
TAXUTZEKO ZERBITZUA
ESLEITZEKO ESPEDIENTEA
HASTEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: Arauzko izapideak hasteko baimena ematea, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzeko GETXOKO UDALAREN ERAIKINEN AUTOBABESERAKO PLANEN GAUZATZEA. Horretarako, 45.000 euroko aurrekontua aurreikusi da gehienez, BEZaren % 21 barne,

**ILLETA, ITURRIBIDE, ORDUÑA,
PASEO DEL PUERTO Y VILLA DE
PLENTZIA.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Aprobar la 2ª certificación - final y relación valorada que por importe de 9.777,14 euros, presenta la Dirección de Obra correspondiente a las comprendidas en el PROYECTO DE SEÑALIZACIÓN HORIZONTAL EN VARIAS CALLES DEL MUNICIPIO: ALTUBE, AMANN, ARKOTXA, AVDA.FERROCARRIL, ENRIQUE ARESTI, ILLETA, ITURRIBIDE, ORDUÑA, PASEO DEL PUERTO Y VILLA DE PLENTZIA, las cuales fueron adjudicadas a la razón social "SEÑALIZACIONES EDER.", por Junta de Gobierno Local N° 378, de fecha 11/10/2016, imputándose el gasto a cargo del Presupuesto Municipal.

**141.- INICIO DEL EXPEDIENTE
PARA LA ADJUDICACIÓN DEL
SERVICIO PARA LA REALIZACIÓN
DE LOS PLANES DE
AUTOPROTECCIÓN DE LOS
EDIFICIOS MUNICIPALES.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante Procedimiento Negociado, sin publicidad, de la REALIZACIÓN DE LOS PLANES DE AUTOPROTECCION DE LOS EDIFICIOS DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, cuyo presupuesto máximo

kontratua sinatzen den egunaren biharamunetik 2017ko azaroaren 30era arte.

BIGARRENA: Administrazioko kontratazioa eraendu behar duten administrazio-klausula berezien eta teknikoek onestea.

HIRUGARRENA: Zerbitzu hori kontratatzearen ondorioz sortutako betebeharrei aurre egiteko behar den gastua baimentzea, 45.000 euroan gehienez ere (BEZa barne).

142.- ESPARRU-AKORDIOAREN ONDORIOZKO KONTRATUA ESLEITZEA, UDALERRIKO BIDEETAKO ZOLADURA GAINEKO MARRAK MARKATZEKO OHIKO MATERIALAK (ZORU GAINEKO SEINALEEN MARGOA) HORNITZEKO.

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: API MOVILIDAD SA enpresari adjudikatzea (IFK: A-28106797) BIDE-MARKETARAKO OHIKO MATERIALAK HORNITZEKO (SEINALE HORIZONTALAK PINTURA) ESPARRU-AKORDIOaren ondorioz sortutako kontratua, esparru-akordiorako aurreikusitako zenbateko osoan, hots, 45.000 euroan, BEZaren % 21 barne (22.500 euro urtean).

Kontratua gauzatzeko epea lau urtekoa izango da, kontratua formalizatzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

estimado asciende a 45.000 euros, 21 % de I.V.A. incluido, desde el día siguiente de la firma del contrato y hasta el 30 de noviembre de 2017.

SEGUNDO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

TERCERO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del servicio de referencia, por importe máximo de 45.000 euros, I.V.A. incluido.

142.- ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DERIVADO DEL ACUERDO MARCO PARA EL SUMINISTRO DE MATERIALES CONVENCIONALES PARA MARCAS VIALES (PINTURA DE SEÑALIZACIÓN HORIZONTAL).

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Adjudicar a la empresa "API MOVILIDAD, S.A.", con CIF: A-28106797, el contrato derivado del ACUERDO MARCO PARA EL SUMINISTRO DE MATERIALES CONVENCIONALES PARA MARCAS VIALES (PINTURA DE SEÑALIZACIÓN HORIZONTAL), por el presupuesto total previsto para dicho Acuerdo Marco, es decir, 45.000 euros, I.V.A. 21% incluido (a razón de 22.500 euros/año).

El plazo de ejecución de dicho contrato será de cuatro años, a contar desde su formalización.

BIGARRENA: Kontratu hori adjudikatzearen ondorioz sortutako betebeharrei aurre egiteko behar den gastua baimentzea, 45.000 euroan.

SEGUNDO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas del contrato adjudicado, por importe de 45.000 euros.

HIRUGARRENA: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 156.1. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, adjudikazioduna Kontratazio Zerbitzuko bulegoetan agertu beharko da (Foru kalea 8) kontratua administrazio-agirian formalizatzeko, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hamabost egun balioduneko epean, gehienez ere. Horretarako, hura prestatuko da eta behar bezala jakinaraziko zaio enpresari.

TERCERO: El adjudicatario, de conformidad con lo indicado en el artículo 156.1 del TRLCSP, deberá comparecer en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, para formalizar el contrato en documento administrativo, en un plazo máximo de quince días hábiles desde la recepción de la notificación del presente acuerdo. A tales efectos se preparará aquel y se avisará oportunamente a la empresa.

HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK, INGURUMENA ETA ONDARE ETA ETXEBIZITZA.

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS, MEDIO AMBIENTE Y PATRIMONIO Y VIVIENDA.

143.- LEHENENGO ERABILERAKO BAIMENA ESKATUTA, IZPEGI ETXEKO BI ETXEBIZITZAK, LEIOA ETORBIDEA 1B, ERABERRITU, ZATITU ETA BOST ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO EGINDAKO OBRARENTZAT EMATEA.

143.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE PRIMERA UTILIZACIÓN PARA LAS OBRAS DE REFORMA DE 2 VIVIENDAS EN LA CASA IZPEGI, EN LA AVDA. DE LEIOA, 1B, PARA SU TRANSFORMACIÓN Y DIVISIÓN EN 5 VIVIENDAS.

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.-

PRIMERO.-

I. ANDER MADARIAGA TORRONTEGUI jaunari, CASA IZPEGI ETXEA 1B S.L. enpresaren ordezkarietan, Leioako etorbideko 1Bn dagoen Izpegi etxean 2 etxebizitza berriztatzeko obrak egiteko eskatu den lehen erabilera lizentzia emango zaio, zatitzeko eta 5 etxebizitza

I. Conceder a D. ANDER MADARIAGA TORRONTEGUI, en representación de la mercantil CASA IZPEGI ETXEA 1B S.L., la licencia de primera utilización solicitada para las obras de reforma de 2 viviendas en casa Izpegi, en la Avenida de Leioa 1B, para su transformación y división en 5

bihurtzeko. Obra horiek Tokiko Gobernu Batzarraren 101. Erabakiaren bidez baimendu ziren, 2016ko martxoaren 22an hartua. Hori guztia, aurkeztutako dokumentazioarekin eta udal arkitektoak 2017ko martxoaren 29an egindako adostasun txostenarekin bat etorriz.

II. Berariaz agerraraztea baimenak eta lizentziak jabetza-eskubidea eta hirugarrenei kalterik egin gabe emango direla. (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 211.2 artikulua).

III. Berariaz gogorazi nahi da, eraikinaren egungo egoera fisikoa egoera juridikora egokitzeko, aldaketaren alta Foru Ogasunean eman behar dela, katastroaren ondorioetarako (Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko 9/89 Foru Arauaren 23. artikulua). Halaber, udalari horren berri eman beharko zaio.

BIGARRENA.- Udalaren Estatistika Sailari Hitzarmen honen berri ematea, dagozkion ondorioetarako.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen eta beraren aurka egin daitezkeen errekurtsoen berri emango zaio eskatzaileari, ondorio egokietarako.

LAUGARRENA.- Ekonomia Arloak lizentzia honi dagozkion eskubideak igorriko ditu. Aurkeztutako likidazioa 207.000,00 euro da.

144.- OBRA-BAIMENA ESKATUTA, SANTIAGO ZABALA KALEKO 6KO ERAKINEKO ATARIKO SARBIDEAK HOBETZEKO EMATEA.

viviendas, obras que fueron autorizadas por Acuerdo nº 101 de la Junta de Gobierno Local adoptado en sesión celebrada el día 22 de marzo de 2016. Todo ello de acuerdo con la documentación presentada y el informe de conformidad emitido por la Arquitecto Municipal, de fecha de 29 de marzo de 2017.

II. Hacer constar expresamente que las autorizaciones y licencias se entenderán otorgadas salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros. (art 211.2 Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo)

III. Se le recuerda expresamente que para adecuar la situación física actual del inmueble a la jurídica, deberá dar de alta la modificación en Hacienda foral, a los efectos de catastro (NF 9/89 del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, art 23), comunicándolo a este Ayuntamiento.

SEGUNDO.- Dar traslado del presente Acuerdo al Departamento de Estadística Municipal, a los efectos oportunos.

TERCERO.- Dar traslado del presente Acuerdo así como de los recursos que proceden contra el mismo al solicitante, a los efectos oportunos.

CUARTO.- Por el Área económica se girarán los derechos correspondientes a la presente licencia. La liquidación presentada asciende a 207.000,00 €.

144.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA LA MEJORA DE LA ACCESIBILIDAD DEL PORTAL DEL INMUEBLE SITO EN LA C/SANTIAGO ZABALA, 6.

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.-

I.- IGOR BILBAO VARONA jaunari, SANTIAGO ZABALA AKETXE 6ko jabe erkidegoaren ordezkari izan, eskatu duen obra lizentzia emango zaio, atariko irisgarritasuna hobetzeko (igogailua zero kotara jaistea, orain dauden eskailerak eskuinera eramanez, eta orain lorategiak hartzen duen zonan sarbideko arrapala bat egitea kanpoan), Getxoko Santiago Zabala 6ko higiezinan, aurkeztutako proiektuarekin bat etorritik, Alvaro García Naviero arkitektoak idatzia eta EHAEOak 2017-01-30ean ikus-onetsia. Idazkian eskatutakoa zehatz bete behar du, eta baldintza hauek ere bai:

- Atarian sartzeko ateeak 0,90 metroko pasabide libre izan behar dute.

- Obraren egikaritzean enpresa batek baino gehiagok, enpresa batek eta langile autonomoek, edo zenbait langile autonomok esku hartzen badute, sustatzaileak, lanak hasi aurretik edo egoera hori jakin bezain laster, koordinatzaile bat izendatuko du segurtasun eta osasuneko arloan, obra egin bitartean.

Obrak egin bitartean, indarrean dauden segurtasun-neurriak hartu beharko dira, hirugarrenei kalterik ez eragiteko.

- Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 215. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, baldintza

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO.-

I.- Conceder a IGOR BILBAO VARONA en representación de la CCPP SANTIAGO ZABALA AKETXE 6, la licencia de obras solicitada para la mejora de la accesibilidad del portal (bajar el ascensor a cota cero, trasladando las escaleras actuales a la derecha y en el exterior ejecutar una rampa de acceso en la zona actualmente ocupada por el jardín) del inmueble sito en Santiago Zabala 6, de Getxo, de acuerdo con el proyecto redactado por el Arquitecto D. Alvaro García Naviero, visado por el C.O.A.V.N con fecha 30/01/2017, debiendo de ajustarse enteramente a lo solicitado en su escrito y a las condiciones que a continuación se indican:

- Las puertas de acceso al portal deberán contar con un hueco libre de paso de 0,90 m.

- Cuando en la ejecución de la obra intervenga más de una empresa, o una empresa y trabajadores autónomos o diversos trabajadores autónomos, el promotor, antes del inicio de los trabajos o tan pronto se constate dicha circunstancia, designará un coordinador en materia de seguridad y salud durante la ejecución de la obra.

Durante el transcurso de las obras deberán adoptar las medidas de seguridad vigentes, para evitar daños a terceros.

- Teniendo en cuenta lo establecido en el art. 215, de la Ley 2/2006, de 30 de junio del Gobierno Vasco sobre Suelo y Urbanismo:

hauek ezarri dira:

- a) Lizentzia lortu ondoren, obrak hilabeteko epean hasi beharko dira, gehienez ere.
- b) Obrak egiteko epea hilabetekoa izango da, segurtasun eta osasunaren gaineko oinarrizko azterlanaren arabera.
- c) Sustatzaileari egotzi dakizkion arrazoiak direla eta, obra hilabetez eten ahalko da, gehienez.

II. Obrak amaitzen direnean, dagokien ikuskapen-bisita eskatu beharko dute, eta horrekin batera honako agiri hauek aurkeztu:

- a) Obra-amaierako ziurtagiria eta likidazioa (igogailua barne), teknikari eskudun batek sinatuta eta elkargo ofizial egokiak ikus-onetsita.
- b) Obraren amaierako egoeraren oinplanoa (ikus-onetsita).
- c) Egindako eraberritzearen koloretako argazkiak.

III. Berariaz jasota geratzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 211.2. artikuluan aurreikusitakoa betez, lizentziak jabetza-eskubidetik salbu eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango direla.

BIGARRENA.- Interesdunei erabaki hau jakinaraztea, eta bidezkoak diren errekurtsioak adieraztea.

HIRUGARRENA.- Ekonomia Arloak dagokion likidazio egokia egingo du, kontuan izanik aurrekontua, aurkeztutako proiektuaren arabera, 24.040,69 eurokoa dela.

145.- OBRA-BAIMENA ESKATUTA,

- a) Las obras se iniciarán como máximo 1 mes después de la obtención de la licencia.
- b) El plazo de ejecución de la obra será de 1 mes (de acuerdo con el Estudio Básico de Seguridad y Salud).
- c) Por causas achacables al promotor no podrá paralizarse la obra más de 1 mes.

II. Al finalizar las obras deberán solicitar la correspondiente visita de inspección, acompañada de la siguiente documentación:

- a) Liquidación (incluido ascensor) y certificado final de obra suscritos por técnico competente y visados por el Colegio Oficial correspondiente.
- b) Plano de planta del estado final de la obra (visado).
- c) Fotografías en color de la reforma realizada.

III. Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo previsto en el art. 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, las licencias se concederán a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero.

SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

TERCERO.- Por el Área Económica será practicada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que, de acuerdo con el presupuesto del proyecto presentado asciende a la cantidad de 24.040,69€.

145.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE

**EUSKAL HERRIA KALEKO 13KO
ERAIKINEAN IGOGAILUA
EZARTZEKO EMATEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.-

I.- IÑAKI ARDANZA LLANO jaunari, EUSKALHERRIA 13ko jabe erkidegoaren ordezkartzan, lizentzia emango zaio higiezin horretan igogailu bat ipintzeko, aurkeztutako proiektuarekin bat etorritik, arkitektoa den Iñaki Aristondo Iciar jaunak idatzia eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak 2016ko abenduaren 14an ikus-onetsia. Idazkian eskatutakoa zehatz bete beharko du.

II.- Eskaileraren gehieneko zabalerak ez daukanez 90 cm baino gehiago, neurri zuzentzaile osagarri gisa, honako hauek proposatu dira:

- a) Jabe erkidegoari jakinarazi zaio arriskua gehitu dela (eskailera 90 cm-ko zabalerarekin uztearen arriskua). Inguruabar horren berri ematen duen erkidegoaren erabakiaren agiria erantsi behar da.
- b) Igogailua aluminiozko txaparekin eta 3+3 segurtasun-beirarekin itxiko da.
- c) Larrialdietarako argiak jarriko dira ebakuazio-ibilbide osoan.
- d) Gutxienez, su-itxalgailu bat jarriko da solairu bakoitzean, 21/A 113/B eraginkortasunarekin.
- e) Eraikinean suteak antzemateko sistema bat jarriko da, su-detektagailuak, alarma-sakagailuak, sirenak eta detekzio-zentral batekin. Hori guztia behar den moduan

**OBRAS PARA LA INSTALACIÓN
DE UN ASCENSOR EN EL
INMUEBLE SITIO EN LA
C/EUSKALHERRIA, 13.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO.-

I.- Conceder a D IÑAKI ARDANZA LLANO E/R de la COMUNIDAD DE PROPIETARIOS EUSKALHERRIA, N° 13, licencia para la instalación de un ascensor en dicho inmueble, de acuerdo con el proyecto presentado, redactado por el Arquitecto D. Iñaki Aristondo Iciar, visado por el Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro, con fecha 14 de Diciembre de 2.016, debiendo de ajustarse enteramente a lo solicitado en su escrito

II.- Como medidas correctoras complementarias dado que el ancho máximo de la escalera no supera los 90 cm , como es el caso, se proponen las siguientes:

- a) La comunidad de propietarios ha sido informada acerca del incremento del riesgo (de dejar la escalera con una anchura de 90 cms.). Debiendo adjuntar el documento de acuerdo de la comunidad en el que se informa de dicha circunstancia.
- b) Se cerrará el ascensor con chapa de aluminio y vidrio de seguridad 3+3.
- c) Se dotará de luminarias de emergencia en todo el recorrido de evacuación.
- d) Se colocará al menos un extintor por planta de eficacia 21/A 113/B.
- e) Se dotará al edificio de un sistema de detección de incendios con detectores, pulsadores de alarma, sirenas y una central de detección, todo

banatuko da.

III.- Obraren egikaritzean enpresa batek baino gehiagok, enpresa batek eta langile autonomoek, edo zenbait langile autonomok esku hartzen badute, sustatzaileak, lanak hasi aurretik edo egoera hori jakin bezain laster, koordinatzaile bat izendatuko du segurtasun eta osasuneko arloan, obra egin bitartean.

Obrak egin bitartean, indarrean dauden segurtasun-neurriak hartu beharko dira, hirugarrenei kalterik ez eragiteko.

IV.- Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 215. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz, baldintza hauek ezarri dira:

d) Lizentzia lortu ondoren, obrak hilabeteko epean hasi beharko dira, gehienez ere.

e) Obra egikaritzeko epea 8 hilabetekoa izango da.

f) Sustatzaileari egotzi dakizkion arrazoiak direla eta, obra hilabetez eten ahalko da, gehienez.

V. Obrak amaitzean, ikuskapen-bisita egokia eskatu beharko da, eta, horretarako, honakoak aurkeztu beharko dira:

d) Obra-amaierako ziurtagiria eta likidazioa (igogailua barne), teknikari eskudun batek sinatuta eta elkargo ofizial egokiak onetsita.

e) Enpresa espezializatu batek egindako neurketa akustikoaren aurkezpena, justifikatzen duena igogailuaren funtzionamenduak Zarata eta Dardaren aurkako Udal Ordenantzaren 11. artikuluko inmisio-indizeak betetzen dituela.

f) Etxebizitzan oro har zer arrisku dituzten, bereziki suteari dagokionez,

ello adecuadamente distribuido.

III.- Cuando en la ejecución de la obra intervenga más de una empresa, o una empresa y trabajadores autónomos o diversos trabajadores autónomos, el promotor, antes del inicio de los trabajos o tan pronto se constate dicha circunstancia, designará un coordinador en materia de seguridad y salud durante la ejecución de la obra.

Durante el transcurso de las obras deberán adoptar las medidas de seguridad vigentes, para evitar daños a terceros.

IV.- Teniendo en cuenta lo establecido en el art. 215, de la Ley 2/2006, de 30 de junio del Gobierno Vasco sobre Suelo y Urbanismo:

d) Las obras se iniciarán como máximo 1 mes después de la obtención de la licencia.

e) El plazo de ejecución de la obra será de 8 meses.

f) Por causas achacables al promotor no podrá paralizarse la obra más de 1 mes.

V. Al finalizar las obras deberán solicitar la correspondiente visita de inspección, acompañada de:

d) Liquidación (incluido ascensor) y certificado final de obra suscritos por técnico competente y visados por el Colegio Oficial correspondiente

e) Presentación de medición acústica realizada por empresa especializada que justifique que el funcionamiento del ascensor cumple con los índices de inmisión establecidos en el Artº. 11 de la Ordenanza Municipal sobre Ruidos y Vibraciones.

f) Acreditación, de que los vecinos hayan recibido una acción formativa

eta larrialdi-egoeran zer egin jakiteko, bizilagunek prestakuntza-egintza egin dutela egiaztatuko da.

VI. Berariaz jasota geratzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 211.2. artikuluan aurreikusitakoa betez, lizentziak jabetza-eskubidetik salbu eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango direla.

BIGARRENA: Ekonomia Arloak likidazio egokia egingo du, kontuan izanik aurrekontua, aurkeztutako proiektuaren arabera, 162.158,74 eurokoa dela.

146.- OBRA-BAIMENA ESKATUTA, SARRIKOBASO KALEKO 52KO ERAIKINEAN IGOGAILUA EZARTZEKO EMATEA.

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.-

I.- MARIA JESUS ITURREGUI CASTRO andreari, SARRIKOBASO 52ko jabe erkidegoaren ordezkartzan, obra lizentzia emango zaio higiezin horretan igogailu bat ipintzeko, aurkeztutako proiektuarekin eta eranskinarekin bat etorritik, arkitektoa den Iñaki Aristondo Iciar jaunak idatziak eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak 2016ko abuztuaren 22an eta 2017ko martxoaren 6an ikus-onesiak, hurrenez hurren. Idazkian eskatutakoa zehatz bete beharko du.

que les haga conocer los riesgos en el hogar general, y el de incendio en particular, y qué hacer en caso de emergencia.

VI. Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo previsto en el art. 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, las licencias se concederán a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero.

SEGUNDO: Por el Área Económica será practicada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que, de acuerdo con el presupuesto del proyecto presentado asciende a la cantidad de 162.158,74 €.

146.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA LA INSTALACIÓN DE UN ASCENSOR EN EL INMUEBLE SITO EN LA C/SARRIKOBASO, 52.

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO.-

I.- Conceder a DOÑA MARIA JESUS ITURREGUI CASTRO E/R de la COMUNIDAD DE PROPIETARIOS SARRIKOBASO, N° 52, licencia de obras para la instalación de un ascensor en dicho inmueble, de acuerdo con el Proyecto y Anexo a Proyecto, presentados, redactados por el Arquitecto D. Iñaki Aristondo Iciar, visados por el Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro, con fecha 22 de Agosto de 2.016 y 6 de Marzo de 2.017, respectivamente, debiendo de ajustarse enteramente a lo solicitado en

su escrito

II.- Eskaileraren gehieneko zabalerak ez daukanez 80 cm baino gehiago, neurri zuzentzaile osagarri gisa, honako hauek proposatu dira:

- a) Jabe erkidegoari jakinarazi zaio arriskua gehitu dela (eskailera 80 cm-ko zabalerarekin uztearen arriskua). Inguruabar horren berri ematen duen erkidegoaren erabakiaren agiria erantsi behar da.
- b) Igogailua aluminiozko txaparekin eta 3+3 segurtasun-beirarekin itxiko da.
- c) Larrialdietarako argiak jarriko dira ebakuazio-ibilbide osoan, eskailera barne.
- d) Gutxienez, su-itzalgailu bat jarriko da solairu bakoitzean, 21/A 113/B eraginkortasunarekin.
- e) Eraikinean suteak antzemateko sistema bat jarriko da, su-detektagailuak, alarma-sakagailuak, sirenak eta detekzio-zentral batekin. Hori guztia behar den moduan banatuko da.

Proposatutako neurri horiez gain, beste hau ere bete beharko da:

- a) Etxebizitzan oro har zer arrisku dituzten, bereziki suteari dagokionez, eta larrialdi-egoeran zer egin jakiteko, bizilagunek prestakuntza-egintza egin dutela egiaztatuko da.

III.- Obraren egikaritzean enpresa batek baino gehiagok, enpresa batek eta langile autonomoek, edo zenbait langile autonomok esku hartzen badute, sustatzaileak, lanak hasi aurretik edo egoera hori jakin bezain laster, koordinatzaile bat izendatuko du segurtasun eta osasuneko arloan, obra egin bitartean. Obrak egin bitartean, indarrean dauden

II.- Como medidas correctoras complementarias dado que el ancho máximo de la escalera no supera los 80 cm , como es el caso, se proponen las siguientes:

- a) La comunidad de propietarios ha sido informada del incremento del riesgo (al dejar la escalera con una anchura de 80 cms.). Debiendo adjuntar el documento de acuerdo de la comunidad en el que se informa de dicha circunstancia.
- b) Se cerrará el ascensor con chapa de aluminio y vidrio de seguridad 3+3.
- c) Se dotará de luminarias de emergencia en todo el recorrido de evacuación, incluyendo la escalera.
- d) Se colocará al menos un extintor por planta de eficacia 21/A 113/B.
- e) Se dotará al edificio de un sistema de detección de incendios con detectores, pulsadores de alarma, sirenas y una central de detección, todo ello adecuadamente distribuido.

Además de estas medidas propuestas se deberá de cumplir lo siguiente:

- a) Se acreditará que los vecinos hayan recibido una acción formativa que les haga conocer los riesgos en el hogar general, y el de incendio en particular, y qué hacer en caso de emergencia.

III.- Cuando en la ejecución de la obra intervenga más de una empresa, o una empresa y trabajadores autónomos o diversos trabajadores autónomos, el promotor, antes del inicio de los trabajos o tan pronto se constate dicha circunstancia, designará un coordinador en materia de seguridad y salud durante la ejecución de la obra. Durante el transcurso de las obras

segurtasun-neurriak hartu beharko dira, hirugarrenei kalterik ez eragiteko.

IV.- Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 215. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz, baldintza hauek ezarri dira:

- g) Lizentzia lortu ondoren, obrak hilabeteko epean hasi beharko dira, gehienez ere.
- h) Obra egikaritzeko epea 6 hilabetekoa izango da.
- i) Sustatzaileari egotzi dakizkion arazoak direla eta, obra hilabetez eten ahalko da, gehienez.

V. Obrak amaitzean, ikuskapen-bisita egokia eskatu beharko da, eta, horretarako, honakoak aurkeztu beharko dira:

- g) Obra-amaierako ziurtagiria eta likidazioa (igogailua barne), teknikari eskudun batek sinatuta eta elkargo ofizial egokiak onetsita.
- h) Enpresa espezializatu batek egindako neurketa akustikoaren aurkezpena, justifikatzen duena igogailuaren funtzionamenduak Zarata eta Dardaren aurkako Udal Ordenantzaren 11. artikuluko inmisio-indizeak betetzen dituela.
- i) Etxebizitzan oro har zer arrisku dituzten, bereziki suteari dagokionez, eta larrialdi-egoeran zer egin jakiteko, bizilagunek prestakuntza-egintza egin dutela egiaztatuko da.

VI. Berariaz jasota geratzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 211.2. artikuluan aurreikusitakoa betez, lizentziak jabetza-eskubidetik salbu eta hirugarrenei kalterik eragin gabe

deberán adoptar las medidas de seguridad vigentes, para evitar daños a terceros.

IV.- Teniendo en cuenta lo establecido en el art. 215, de la Ley 2/2006, de 30 de junio del Gobierno Vasco sobre Suelo y Urbanismo:

- g) Las obras se iniciarán como máximo 1 mes después de la obtención de la licencia.
- h) El plazo de ejecución de la obra será de 6 meses.
- i) Por causas achacables al promotor no podrá paralizarse la obra más de 1 mes.

V. Al finalizar las obras deberán solicitar la correspondiente visita de inspección, acompañada de:

- g) Liquidación (incluido ascensor) y certificado final de obra suscritos por técnico competente y visados por el Colegio Oficial correspondiente
- h) Presentación de medición acústica realizada por empresa especializada que justifique que el funcionamiento del ascensor cumple con los índices de inmisión establecidos en el Artº. 11 de la Ordenanza Municipal sobre Ruidos y Vibraciones.
- i) Acreditación, de que los vecinos hayan recibido una acción formativa que les haga conocer los riesgos en el hogar general, y el de incendio en particular, y qué hacer en caso de emergencia.

VI. Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo previsto en el art. 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, las licencias se concederán a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero.

emango direla.

BIGARRENA: Erabaki hau interesdunei jakinaraziko zaie eta bidezkoak diren errekurtsioak adieraziko zaizkie, eta txosten teknikoa Irisgarritasunari buruzko Euskal Kontseiluari igorriko zaio, horren berri izan dezan; kontuan hartuz, udaleko zerbitzu teknikoek, bertan, betearaztetik salbuetsi dituztela Euskal Autonomia Erkidegoko desgaituen irisgarritasuna sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen nahiz apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren alderdi zehatz batzuk.

HIRUGARRENA: Ekonomia Arloak likidazio egokia egingo du, kontuan izanik aurrekontua, aurkeztutako proiektuaren arabera, 55.525,25 eurokoa dela.

147.- GASTUA EGITEA XEDATU ETA BAIMENTZEA, 37.1.-VENANCIOS EGIKARITZE-UNITATEA URBANIZATZEKO KOSTUAK FINANTZATU AHAL IZATEKO BEHAR BESTEAN.

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.- Beheko koadroan aipatzen diren gastuak baimendu eta xedatzea, eta betebeharrak egokiak aintzatestea, Tokiko Gobernu Batzarraren 349/2016 Erabakiaren bidez onetsitako Hitzarmenaren III. klausula betetzeko. Horrela, 2/2006 Legearen 173. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoaren babespean, Urcullu Sauto neba-arrebei eta IBATAO, S.A. enpresari 37.1-“Venancios” egikaritze unitatean dagozkien urbanizazio

SEGUNDO: Notificar este acuerdo a los interesados con indicación de los recursos procedentes, y remitir el informe técnico, para su conocimiento, al Consejo Vasco sobre Accesibilidad, teniendo en cuenta que los Servicios Técnicos municipales eximen en el mismo del cumplimiento de determinados aspectos de la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, de promoción de la accesibilidad de minusválidos del País Vasco, y del Decreto 68/2000, de 11 de abril.

TERCERO: Por el Área Económica será practicada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que, de acuerdo con el presupuesto del proyecto presentado asciende a la cantidad de 55.525,25 €.

147.- AUTORIZAR Y DISPONER LOS GASTOS PARA PERMITIR LA FINANCIACIÓN DE LOS COSTES DE URBANIZACIÓN CORRESPONDIENTES A LA U.E. 37.1.“VENANCIOS”.

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO.- Autorizar y disponer los gastos que se detallan en el cuadro que viene a continuación, así como reconocer las obligaciones correspondientes, para la ejecución de la Cláusula III del Convenio aprobado por acuerdo de la Junta de Gobierno Local nº 349/2016, para, al amparo de lo prevenido en el apartado 3º del Art. 173 de la Ley 2/2006, permitir la financiación de los costes de urbanización que les corresponden a los

kostuak finantzatzea ahalbideratuko da, sortzen den "G" izeneko lur-zatian beraien titulartasuneko partaidetza-portzentajeak Getxoko Udalaren alde adjudikatuz. Hori guztia 004.00 1520.0 600.00.00 partidaren kontura.

Hnos. Urcullu Sauto y la mercantil IBATAO, S.A. en la Unidad de Ejecución 37.1-"Venancios", mediante la adjudicación, a favor del Ayuntamiento de Getxo, de los porcentajes de participación de los que son titulares en la parcela de resultado denominada "G". Todo ello con cargo a la partida 004.00 1520.0 600.00.00.

JABEA PROPIETARIO		G LUR-ZATIA PARCELA G	
		BARRUKOA INTERNO	
		%	€
IBATAO, SA	A-48314486	25,36	8.232,51
MARÍA BEGOÑA URCULLU SAUTO	45241175-Z	18,66	6.057,51
MARÍA CONCEPCIÓN URCULLU SAUTO	21309161-Y	18,66	6.057,51
ANA MARÍA URCULLU SAUTO	14515848-L	18,66	6.057,51
MARIA BEGOÑA URCULLU DONAT	24310952-K	9,33	3.028,76
ANA MARIA URCULLU DONAT	22648462-V	9,33	3.028,76
<i>guztira total:</i>		<i>100,00</i>	<i>32.462,56</i>

BIGARRENA.- Txeke egokiak emango dira, hitzarmena sinatzean emateko.

SEGUNDO.- Extender los cheques correspondientes para su entrega a la suscripción del convenio.

**148.- 27.4-SAN NIKOLAS
EGIKARITZE-UNITATEA
URBANIZATZEKO KUOTA GISA
APLIKATUTAKO ZENBATEKOEN
ETA GEROZTIK BILDUTAKOEN
ARTEKO ALDEEN ZENBATEKOAK
ITZULTZEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

**148.- DEVOLUCIÓN DE LOS
IMPORTES CORRESPONDIENTES
A LA DIFERENCIA ENTRE LAS
CUANTÍAS RECAUDADAS Y
APLICADAS EN CONCEPTO DE
CUOTAS DE URBANIZACIÓN DE
LA U.E. 27.4-"SAN NIKOLAS".**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA. Ondoko zenbateko hauek itzultzea onetsiko da, 27.4-“San Nikolas” egikaritze unitatea urbanizatzeko kuota gisa bildutako zenbatekoen eta aplikatutako en arteko aldeari dagozkienak, Tokiko Gobernu Batzarraren 2016-10-04ko 371. Erabakiaren bidez behin betiko onetsi zen birpartzelazioaren behin betiko likidazioaren kontuarekin bat etorriz.

PRIMERO.- Aprobar la devolución de los importes que se detallan a continuación, correspondientes a la diferencia entre las cuantías recaudadas y aplicadas en concepto de cuotas de urbanización de la Unidad de Ejecución 27.4-“San Nikolas”, conforme a la cuenta de liquidación definitiva de la reparcelación aprobada definitivamente por acuerdo nº 371, adoptado por la Junta de Gobierno Local el 04.10.2016:

Zenbatekoak (BEZ kanpo) Importes (IVA excluido)	ARTIBAI	ETXEBIZ	PROM. ETXEAK	I. SANTXO	
Bildutako kuotak Cuotas recaudadas	373.451,00 €	360.427,65 €	406.853,06 €	0,00 €	1.140.731,71 €
Udalak ordaindutako kostuak Costes afrontados desde Ayto	309.567,71 €	298.117,92 €	334.640,28 €	0,00 €	942.325,91 €
Aldea (+itzultzeko/-exijitzeko) Diferencia (+a devolver/-a exigir)	63.883,29 €	62.309,73 €	72.212,78 €	0,00 €	198.405,80 €

Ordainketa-agindu egokiak egingo dira, erabaki hau betetzeko.

Proceder a expedir los oportunos mandamientos de pago para dar cumplimiento al presente acuerdo.

BIGARRENA.- Alkatetzaren 4965/2014 zenbakidun Dekretuaren bidez ETXEBIZ, S.L. enpresari diru-zenbateko egokiak erreklamatu zitzaizkion, nekazaritzako eraikinak eta itxitura eta hegalkinak eraisteagatik eman beharreko kalte-ordainak ordaintzeko, baita sestra azpiko adjudikazioengatik eta lorategiagatik konpentsazioak ordaintzeko ere, guztira 97.618,62 eurotan, gero birpartzelazio proiektuaren arabera banatzeko. Beraz, zenbateko hori ordaintzeke dagoenez gero, 62.309,73 euroekin konpentsatuko da partzialki, aurreko atalean enpresa horren alde aintzatetsia.

SEGUNDO.- Teniendo en cuenta que, por Decreto de Alcaldía nº 4965/2014 fueron reclamadas a la mercantil ETXEBIZ, S.L. las cantidades precisas para responder de las indemnizaciones por derribo de edificios y cierres y vuelos agrarios, así como de las compensaciones por adjudicaciones bajo rasante y por jardín, por un importe total de 97.618,62 €, para su posterior distribución conforme al proyecto de reparcelación, y encontrándose ésta cantidad aún pendiente de abono, proceder a compensar parcialmente la misma con la cuantía de 62.309,73 € reconocida a favor de la citada mercantil en el apartado anterior.

HIRUGARRENA.- 62.309,73 euroko zenbatekoa, aurreko atalean aipatzen

TERCERO.- Proceder a distribuir proporcionalmente la cuantía de

dena, behean azaltzen den moduan zatituko da, modu proportzionalan, Alkatetzaren 4965/2014 zenbakidun Dekretua dela bide exijitutako zenbatekoak partzialki konpentsatzeko:

62.309,73 € a que se refiere el precedente apartado, en los términos siguientes, para compensar parcialmente las cantidades exigidas en virtud del Decreto de Alcaldía nº 4965/2014:

	ARTIBAI	ETXEBIZ	PROM. ETXEAK	I. SANTXO	GUZTIRA TOTALES
Kalte-ordainak eta konpentsazioak, proiektuaren arabera					
Indemnizaciones y compensaciones según proyecto	88.924,28 €	-97.618,62 €	421,97 €	8.272,37 €	0,00 €
Ordaindu gabeko zorreatatik konpentsatutako zenbatekoa	0,00 €	62.309,73 €	0,00 €	0,00 €	62.309,73 €
Importe compensado por deudas pendientes					
Banatzeko erabilgarri dagoen zenbatekoa	56.760,15 €	0,00 €	269,34 €	5.280,23 €	62.309,73 €
Importe disponible para su distribución					
Ordaintzeke dagoen aldea	32.164,13 €	-35.308,89 €	152,63 €	2.992,14 €	0,00 €
Diferencia pendiente					

LAUGARRENA.- Gastua baimendu eta xedatuko da, eta betebeharra aintzatetsi eta ordainketa aginduko da, aurrekontuko 004/1530/6010091 partidaren kontura, ordaintzeke dagoen 35.308,89 euroko aldea (oraindik ere ETXEBIZ, S.L.k zorretan daukana, unitatearen behin betiko likidazio-kontuaren arabera, erabaki honetako bigarren idatz-zatian aipatzen den konpentsazioa egindakoan), nekazaritzako eraikin eta itxitura eta hegalkinak eraistegatiko kalte-ordainen kontzeptupean, baita sestra azpiko adjudikazioengatiko eta lorategiatiko konpentsazioak ordaintzeko ere, behean azaltzen den xehetasunaren arabera. Hori guztia gorabehera, Udal Ogasunari zenbateko hori itzultzeko prozedura egokia has daiteke aldi berean:

CUARTO.- Autorizar y disponer el gasto, así como reconocer la obligación y ordenar el pago, con cargo a la partida presupuestaria 004/1530/6010091, por la diferencia pendiente de 35.308,89 euros (aún adeudada por ETXEBIZ, S.L. según la cuenta de liquidación definitiva de la Unidad, una vez practicada la compensación a la que se refiere el apartado segundo del presente acuerdo), en concepto de indemnizaciones por derribo de edificios y cierres y vuelos agrarios, así como de las compensaciones por adjudicaciones bajo rasante y por jardín, conforme al siguiente detalle, todo ello sin perjuicio de que paralelamente se incoe el procedimiento que legalmente corresponda a fin de reintegrar a la Hacienda Municipal dicho importe:

	ARTIBAI	ETXEBIZ	PROM. ETXEAK	I. SANTXO	GUZTIRA TOTALES
Ordaintzeke dagoen aldea	32.164,13 €	0,00 €	152,63 €	2.992,14 €	35.308,89 €
Diferencia a abonar					

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakariak bilkura egun bereko goizeko bederatzia eta hogeita hamar minutu direnean eman du bukatutzat. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Presidente levantó la sesión siendo las nueve horas y treinta minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.